



Aukeratze-prozesurako informazio erabilgarria

Zenbat denbora egon behar dut, nahi eta nahi ez, azterketa hasi denetik gelatik ateratzeko aukera izan arte?

Gutxienez ordu erdi egon behar da. Epe hau amaitzean, azterketa entregatu daiteke gutunen sistema erabiliz.

Non begiratu ditzaket emaitzak? Noiz aterako dira?

Prozesu osoaren informazioa (emaitzak...) ondorengo estekan kontsulta dezakezu: <https://appseducacion.navarra.es/oposiciones/inicio.faces>

Ezin da data zehaztu epaimahai bakoitzaren zuzenketaren arabera delako. Zenbait Epaimahaitan 30 izangai daude eta beste zenbaitetan 150, beraz, batzuk lehenago amaituko dute. Baina epaimahai bat baino gehiago daukaten espezialitateetan emaitzak aldi berean publikatu dituzte.

Lehenik gutunetako pliken notak aterako dira (zenbaki bat) eta hauen irekiera egiteko deialdi publikoa egingo da (48 ordu beranduago). Behin epe hau pasata gutunak erreferentziazko ikastetxeetan irekiko dira (Navarro Villoslada edo Biurdana) eta emaitzak izenekin loturik publikatuko dira.

Zein epe dago emaitzak erreklamatzeko?

Bi lan eguneko epea dago erreklamazioetarako. Epaimahaiak epe laburra edukiko du erantzuteko.

Epaimahaiarekin ados ez egotearen kasuan, gorako errekurtsioa aurkeztu daiteke Giza Baliabideen Zuzendariaren aurrean emaitzak publikatzen direnetik hilabete bateko epean.

Zertan oinarritu beharko litzateke errekurtsioa? Azterketa ikusi ahal izango da?

Ebaluazio irizpideak publikatuta daude, beraz, hauek oinarri moduan har daitezke. Hala ere,

kontuan hartu behar da irizpide bakoitzari dagokion portzentajea ez dela publikoa eta epaimahaiaren esku dago.

Deialdian ez da aurreikusten azterketa ikusteko aukerarik.

Epaimahaiak lan egingo dute San Ferminetan?

Epaimahaiak horrela erabakitzen badu, bai. Edozein modutan ikastetxeetako atezainen ordutegiak kontuan hartuz, batez ere jai egunetan.

Noiz aurreikusten da prozesuaren amaiera?

Izangai gutxi dituzten epaimahaietan seguruenik San Ferminetarako, izangai askotakoetan, aldiz, uztail amaierara arte luza daiteke.

Zerrendetan mantendu nahi badut soilik, sinatu eta joan naiteke?

Ez. 55/2016 Foru Agindua zehazten du zerrenda orokorrean mantentzeko o baino altuagoa den emaitza lortzea beharrezkoa dela. Beraz, komeni da azterketa zurian ez uztea eta gaiarekin loturiko zentzuzko zerbait idaztea.

Nola kalkulatu da azken emaitza interinoen zerrendetarako?

Puntuazioa bi hauen batura izanen da:

1. Azterketaren nota

Bukaerako nota bi proben batezbestekoa da. Lehenengo probak bi atal ditu: A eta B. Bi noten batezbesteko aritmetikoa bukaerako notaren %50 izanen da. Beste %50 bigarren proban lortutakoa izanen da. Bigarren proba hau ez baduzu egin, kasu horretan zero bat da zure nota.

2. Esperientzia

Puntu bat urte bakoitzeko, gehienez 5 urteko esperientzia, bider bi.

